

PRENTSA-OHARRA

Ondarroan "Jakinduriek" bat egingo du bertsoen errimekin

Ekainaren 2an, Ondarroako Kofradia Zaharrear, Zientziaren Giltzak elkartearen 10. urteurrena ospatzeko, "Jakinduriek mundue erreko dau" bertsozientzia emanaldia izango da

Miren Basaras, Josu Lopez-Gazpio eta Ainara Sangroniz zientzialariak eta Josune Aramendi eta Andoni Egaña bertsolariak izango dira berbalagun, Kike Amonarriz umoregilearen batutapean

Ondarroan, 2025eko maiatzaren 27an. Atsotitzak esaera labur eta zorrotzak dira. Ateraldi edo sententzia gisa har daitezke eta badira pentsaera jakin baten isla ere. Horietako bat da "Jakinduriek mundue erreko dau" atsotitza, ezagutzarekiko mesfidantza agertzen duenak. Baina ekainaren 2an [Ondarroko Kofradia Zaharrear](#) erremedioa jarriko diogu esaera zaharrari, ezagutza errimekin jantziz.

Hamar urtez Ondarroan ezagutza zientifikoa zabaltzen jardun duen [Zientziaren Giltzak](#) elkartearen urteurrena ospatzeko, [UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Ondarroako Udalak](#), Zientziaren Giltzak elkartearekin elkarlanean, bertsozientzia emanaldia antolatu dute zientzialarien jakinduriek eta bertsolarien errimek oholtza bete dezaten.

Kike Amonarriz soziolinguista eta umoregilearen batutapean **Josune Aramendi** eta **Andoni Egaña**k bertsoak jarriko dizkiete **Miren Basaras, Josu Lopez-Gazpio** eta **Ainara Sangroniz** zientzialariek jorratutako gaiei.

Basaras Mikrobiologian doktorea da eta UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea da eta [birusen "fama" txarrari erreparatuko die](#) haren hitzaldian. Uste okerre aurre eginez, publikoari erakutsiko dio birus gehienak ez direla kaltegarriak, asko onuragarriak ere izan daitezkeela baizik.

Lopez-Gazpio Kimikan doktorea da eta Udako Euskal Unibertsitateko Goi-mailako Online Institutuko irakaslea. Hitzaldian atzera begiratuko du, iraganera, eta [Johan Hultin patologoaren ikerketaz hitz egingo du](#). Urte luzez 1918ko gripea aztertu ondoren, 2002an gizateriak pandemia bat jasango zuela esan zuen ikertzailea, hain zuzen ere.

Azkenik, **Sangroniz** ikertzaileak sukaldatzen jarriko du ikuslegoa. Errezeta simple bati ekingo dio: [arrautza egosi perfektua nola lortu](#) azalduko du (hori bai, zientifikoki). Sangroniz Kimikan doktorea da eta, gaur egun, UPV/EHUko Kimika Fakultateko irakaslea eta ikertzailea da.

"Jakinduriek mundue erreko dau" bertsozientzia saioa **ekainaren 2an**, astelehena, izango da **arratsaldeko 18:30ean Ondarroako Kofradia Zaharrean**. Sarrera librea izango da lekuak bete arte. Ekitaldira joan nahi dutenek, **gaurtik aurrera, Ondarroako Turismo Bulegora** (Kofradia Zaharrean) **joan ahal izango dute gonbidapena jasotzera**. Ekitaldira sartzeko, gonbidapena sarreran erakutsi beharko da.

NOTA DE PRENSA

El conocimiento se hace bertso en Ondarroa

El próximo lunes 2 de junio, la Cofradía Vieja de Ondarroa acogerá el espectáculo "Jakinduriek mundue erreko dau", actividad que combina bertsolarismo y divulgación científica, celebrada en el marco del 10º aniversario de la asociación Zientziaren Giltzak

Los bertsolaris Josune Aramendi y Andoni Egaña pondrán voz y rima a cuestiones científicas propuestas por la microbióloga Miren Basaras, el profesor y divulgador Josu Lopez-Gazpio y la química Ainara Sangroniz, en un evento capitaneado por el presentador y humorista Kike Amonarriz

Ondarroa, 27 de mayo de 2025. Los refranes son expresiones breves y agudas. Pueden ser tomadas como una ocurrencia o una sentencia, y también son reflejo de un modo de pensar concreto. Uno de ellos es el refrán "Jakindurien mundue erreko dau" (La sabiduría quemará el mundo), que muestra desconfianza hacia el conocimiento. Pero el próximo lunes 2 de junio se pondrá remedio al viejo dicho en la Cofradía Vieja de Ondarroa, vistiendo con rimas el conocimiento.

Para ello, la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#) y el [Ayuntamiento de Ondarroa](#), en colaboración con la asociación [Zientziaren Giltzak](#), han organizado un espectáculo de bertsozientzia en el que el conocimiento y las rimas se abrirán paso a través del escenario. Este evento se enmarca en la celebración del 10º aniversario de Zientziaren Giltzak, principal difusora del conocimiento científico en la localidad.

Bajo la batuta de **Kike Amonarriz**, sociolingüista y humorista, los bertsolaris **Josune Aramendi** y **Andoni Egaña** pondrán la rima y los versos a los temas que expondrán de manera breve las científicas Miren Basaras, Josu López-Gazpio y Ainara Sangroniz.

Basaras, doctora en Microbiología, y profesora de la Facultad de Medicina y Enfermería de la UPV/EHU, se centrará durante su intervención en la "mala fama" que cosechan los virus. Para

hacer frente a estas creencias y prejuicios, desmontará algunos falsos mitos sobre los virus, como, por ejemplo, que la mayoría sean dañinos, dado que muchos de ellos pueden resultar incluso beneficiosos.

Después, **Lopez-Gazpio**, doctor en Química y profesor del Instituto online Superior (GOI) de la Udako Euskal Unibertsitatea, echará la mirada atrás para hablar del pasado, y traerá al escenario la investigación de Johan Hultin. Tras estudiar durante años la gripe de 1918, este patólogo estadounidense nacido en Suecia se hizo reconocido entre el gran público al pronosticar en 2002 que la humanidad iba a sufrir una nueva pandemia.

Por último, la investigadora **Ainara Sangroniz**, doctora en Química y profesora e investigadora de la Facultad de Química de la UPV/EHU, pondrá a cocinar a las personas asistentes. En este sentido, sumergirá al público en una sencilla receta que tendrá como objetivo conseguir un huevo cocido perfecto (eso sí, avalado por la ciencia).

La sesión de bertsozientzia, "Jakinduriek mundue erreko dau", que combinará bertsos y charlas de divulgación científica, se celebrará el **próximo lunes 2 de junio a las 18:30 horas** en la **Cofradía Vieja de Ondarroa**. La entrada será libre hasta completar el aforo. Quienes quieran asistir al evento, **desde hoy podrán acercarse a la Oficina de Turismo de Ondarroa** (en la Cofradía Vieja) para **recoger su invitación**. Para poder acceder al evento, será necesario mostrar dicha invitación en la entrada.